


I-PRENTSA

“Eskutitzak”



“ESKUTITZA”

Dena urriaren 17. egunean hasi zen. Lagun batzuekin Intxaurrondora joan nintzen arratsalde hartan, euskararen aldeko jai bat zegoela eta.

Lagun batek neska hura aurkeztu zidan eta begirada batekin jakin nuen, edozer gauza egingo nukeela neska horren ondoan egotearren. Neskak nire telefono zenbakia nahi zuela esan zidanean, nik baietz esan nion eta bere telefonoan nire zenbakia idatzi nion. Hurrengo egunak, neska horrekin hitz egiten pasa nituen denbora luzeak, zenbat eta gehiago ezagutu, gero eta gehiago gustatzen hasi zitzaidan. Oso gustura hitz egiten nuen berarekin.

Ostiral arratsalde batzuetan berarekin gelditzen nintzen eta asteko egun hoberenak izan ohi ziren, berarekin pasa ditudan egun guzti horiek bezala.

Abenduaren 8an hasi zen dena, bera nire neskalaguna eta ni bere mutil-laguna bilakatu nintzen eta istorio polit bati hasiera eman genion.

Egunak, asteak, hilabeteak pasatu ziren eta nik neska hura geroz eta gehiago maitatzen nuen, maitasunitsuak bezala, ez dakizula zergatik maite duzun baina inor baino hobeto dakizu asko maite duzula eta edozer gauza egingo zenukeela bere ondoan egotearren.

Zorion momentu bukaezinak izan nituen, baina gauza guztiak bezala, egoera aldatu daiteke eta zorion sentazio hura geroz eta gehiago urruntzea. Irribarre zoriontsu horiek tristura bilakatu ziren.

Bolada txarra pasatzen geundenean, zuri kontatzeko erabakia hartu nuen.

Banekielako zu inor baino adituagoa zarela bizitzako kontu hauetan. Zuk bizi izan dituzu eta.

Harremana amaitu zenean, zu izan zinen inor baino hobeto eta gehiago, nire ondoan egon zena eta beharrezko aholku guztiak eman zenizkidan bakarra.

Zuk dituzu, gauza txar guztientzako hitz polit guztiak, negar batetik irribarrera aldatzen dituzten hitzak.

ESKERRIK ASKO AMONATXO!!

[Enaitz Aginagalde 2.A Donostian 2016/02/27](#)

ESKUTITZA

Duela gutxi, dakizuenez, Mazedoniako eta Greziako mugetara siriar, afganiar eta irakiar ugari iritsi dira, bertan dauden gerratik ihes egiteko. Milaka pertsona Europan saiatzen sartzen ari dira etorkizun berri baten bila, baina Mazedoniako mugan ez diete uzten sartzen.

Eskutitz hau Mazedoniako agintarientzat doa. Jende asko bizitza galdu du Sirian dauden gerreatatik. Pentsatu zu hango biztanle baten buruan egongo bazina, ez zenuke beste erremediorik izango . Jende hori hor dago,ez dutelako beste lekurik bizitzeko, ezin dute beraien bizilekuetara itzuli, beldurra dute. Munduko pertsona guztiak eskubideak ditugu, eta nire ustez hor dagoen jendeari beraien bizitza aldatzeko aukera bat eman behar zaio. Ate horiek ireki egin behar dituzue jendeak gurutzatzeko!!!

Zuek,bakarrik, pertsonako

puru bat uzten duzue muga hori gurutzatzen eta beste guztiak bertan gera tren dira. Mugan pilatuta gelditzen den jendea ahal duen moduan pasatzen ditu egunak, batzuk kanpaina denda batzuetan lo egiten dute baino gehienek lurrean egiten dute lo. Guztira, hogeita mila pertsona daude mugetan Mazedonian sartu nahian. Atzerriratu asko ume txiki eta emakumeak dira, baldintza oso gogorretan bizi dira, askok ez dute janarik eta ez dirurik.

[Julen Chavarri 2.A Donostian 2016/02/29](#)